

AGINDUA, 2023KO APIRILAREN 4KOA, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUARENA, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAREN 2021-2024 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEN DUENA.

2021eko ekainaren 2ko Aginduaren bidez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren 2021-2024 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Agindu horren hirugarren ebazpen-zatiak aurreikusten duenez, plan hori aldiari behin berrikusi ahal izango da, planaren aurreikuspenak inguruabar materialetara eta aurrekontu-inguruabarretara egokitzeko eta haren barruan dirulaguntza neurri edo jarduera berriak sartzeko.

Saileko zenbait zuzendaritzek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko eskatu dute, dirulaguntza edo deialdi berri batzuk sartzeko, dirulaguntzen plan estrategikoa aurreikusitako helburuen barruan.

Ondoren agertzen diren jarduera-ildoak sartzean dautza planari egindako aldaketak:

- ✓ Hiria berroneratzeko programa sozial bat, Euskadiko Gurutze Gorriarena, garatzeko dirulaguntza.
- ✓ Birgaitze-programa, bizitegi-inguruneen alde ekonomikoa eta soziala sustatzera zuzendua. C02.I01
- ✓ adinekoei, desgaitasuna dutenei eta/edo mendekotasun-egoeran daudenei etxebizitzarako irisgarritasun unibertsala bermatzeko lurralde-proiektu berrietarako programa.
- ✓ Etxebizitzaren arloan azterlanak, ikerketak eta zabalkundea egiteko dirulaguntza.
- ✓ Aireportuak susatzea, askotariko sustapenaren bidez.
- ✓ Aireportuak susatzea, Aireportuak Sustatzeko Sozietatearekin lankidetzan.
- ✓ *Revista de Derecho del Transporte Terrestre, Marítimo, Aéreo y Multimodal* izeneko aldizkaria.
- ✓ Errepideko garraioko enpresa pribatuak modernizatzeko laguntza-programa.
- ✓ Tren-geltokietako ezeztapen-sistemak digitalizatzea.

Horrenbestez, agindu honen xedea da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren 2021-2024 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, egin nahi diren dirulaguntzen deialdi berriak plan horretan sartzeko,

indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan aurreikusitakoa bat etor dadin.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren 2021-2024 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Agindua aldatzea, haren barruan dirulaguntza edo deialdi batzuk sartzeko (aipatu agindua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena da, eta 2021eko ekainaren 21ekoa).

Bigarrena.- Ebazpen honen eranskina onartzea. Eranskin hori 2021eko ekainaren 2ko Aginduaren II. eranskin bihurtuko da, eta dirulaguntza berrien zerrenda jasoko du.

Hirugarrena.- Agindu honen edukia argitara ematea, Sailaren web-orrian eta Gardentasunaren Atarian.

Vitoria-Gasteiz

Ignacio María Arriola López.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua.

Elektronikoki sinatuta

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor ez dadin atzean geratu.				
Helburu estrategikoa: 2. Gobernantza eta Bultzatu 2050 hiri-agendaren ezarpena garatzea, hiri-berroneratzea EAEko lurralde osora zabalduz				
Organoa: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza				
Aurrekontuetako programa: Berrikuntza-funtsa (5414)				
Diru-laguntzen lerroa: Hiria berroneratzeko programa soziala, Euskadiko Gurutze Gorriarena, garatzeko dirulaguntza				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren barruan)				
<p><u>Helburua:</u> Hiri-berroneratze integraleko prozesuei buruzko ezagutzan aurrera egitea.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa:</u> Lurralde bateko biztanleriaren beharrak aztertzea, ingurunearen arazoak antzemanaz, lurralde horrek dituen ahalmenak ahaztu gabe, baita kalteberenak antzematea eta eragile sozialek diagnostiko bat egiteko eta hobekuntza-proposamenak garatzeko duten konpromisoa lortzea ere.</p> <p><u>Adierazleak/Magnitudeak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Programako parte-hartzaileen kopurua: 30 ✓ Parte hartzen duten eragileen kopurua (gizarte- zein auzo-arlokoak): 30 ✓ Bultzatutako edo aktibatutako talde eragileen kopurua: 10 ✓ Emandako prestakuntza- eta transferentzia-ikastaroen kopurua: 10 				
Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:				
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskadiko 2050 Hiri Agenda Bultzatu ✓ Euskadi 2030 Agenda ✓ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi Plana (2030) 				
Dirulaguntzen xede diren sektoreak: Euskal Herriko Gurutze Gorria				
Sailen aurrekontu-konpromisoak				
7. kapitulua	Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak			
	2021	2022	2023	2024
			100.000	
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna				

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor ez dadin atzean geratu.					
Helburu estrategikoa: 2. Gobernantza eta Bultzatu 2050 hiri-agendaren ezarpena garatzea, hiri-berroneratzea EAEko lurralde osora zabalduz					
Organoa: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza					
Aurrekontuetako programa: Berrikuntza-funtsa (5414)					
Diru-laguntzen lerroa: Euskal Herriko Unibertsitatearentzako dirulaguntza, Hiri Berroneratzeari buruzko Ikerketa eta Berrikuntzaren Transferentzia Zentroa bultzatzeko					
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren barruan)					
<p><u>Helburua:</u> Berrikuntza adimenduna bultzatzea hiri jasangarrien esparruan, trakzio-proiektu aglutinatzaileak sustatuz, hiru trantsizio handiek ukituak eta helburu orokorretan eragina dutenak: deskarbonizazioa, egokitzapena eta klima-aldaketa arintzea, hiri-erresilientzia, efizientzia eta autonomia energetikoa eta hiri-ingurunearen hobekuntza.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa:</u> Euskadin Hiria Birgaitzeko eta Berroneratzeko Estrategia integral bat lantzen eta garatzen laguntzea, nazioartean erreferentzia izango dena, arlo horretan ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-zentro bat sortuz.</p> <p><u>Adierazleak/Magnitudeak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Programako parte-hartzaileen kopurua: 30 ✓ Parte hartzen duten eragileen kopurua (gizarte- zein auzo-arlokoak): 30 ✓ Bultzatutako edo aktibatutako talde eragileen kopurua: 10 ✓ Emandako prestakuntza- eta transferentzia-ikastaroen kopurua: 10 					
Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:					
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskadiko 2050 Hiri Agenda Bultzatu ✓ Euskadi 2030 Agenda ✓ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi Plana (2030) 					
Dirulaguntzen xede diren sektoreak: Euskal Herriko Unibertsitatea					
Sailen aurrekontu-konpromisoak					
7. kapitulua		Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak			
		2021	2022	2023	2024
				350.000	
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez					
Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna					

Ardatz estrategikoa: Lehendik dauden bizitegi-eraikinen parkea balioztatzea
Helburu estrategikoa: 2. Birgaitze-politika integrala, efizientea eta jasangarria ezartzea
Organoa: Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
Aurrekontuetako programa: Suspertze- eta Erresilientzia- Mekanismoa (1228) eta Etxebizitza Programa (4312)
Diru-laguntzen lerroa: Birgaitze-programa, bizitegi-inguruneen alde ekonomikoa eta soziala sustatzera zuzendua. C02.I01
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren barruan)
<p><u>Helburua:</u> Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntzak.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa:</u> Eraikinetako elementu pribatiboetan edo familia bakarreko etxebizitzetan birgaitzeko esku-hartzeak egitea, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, irisgarritasuna errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko.</p> <p><u>Adierazleak/Magnitudeak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Birgaitutako etxebizitzaren kopurua: 7.773 ➤ Irisgarritasunean, energia-efizientzian, kontserbazioan eta bizigarritasunean hobekuntza konputagarriak dituzten etxeen eta pertsonen kopurua: 5.830 ➤ Energia-kontsumoak eta CO2 emisioak murriztea: % 30 energia berriztaezinen kontsumoan <ul style="list-style-type: none"> ➤ % 30 energia berriztaezinen kontsumoan ➤ D eta E zonetako familia bakarreko etxebizitzetan berokuntzan eta hozte-sisteman, % 35, eta, C zonetan, % 25
Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Etxebizitza Plan Zuzendaria (2021-2023) ✓ Suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-plana: bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak (2., 3., 4., 5. eta 6. programak) ✓ Euskadi Next 2021-2023 Plana
Dirulaguntzen xede diren sektoreak:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Pertsona fisikoak edo juridikoak, pribatuak edo publikoak, jabeen erkidegoak, ondasun-erkidegoak edo bestelako unitate ekonomikoak, baldin eta jabeak, errentariak, gozamen-dunak edo erabilera- eta aprobetxamendu-eskubideen titularrak badira ✓ Hirigintza-sozietateak ✓ Sozietate publikoak

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
4. eta 7. kapitulua	Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak			
	2021	2022	2023	2024
		34.476.906	47.234.230	
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Emateko prozedura: Lehiarik gabekoa				

Ardatz estrategikoa: Lehendik dauden bizitegi-eraikinen parkea balioztatzea					
Helburu estrategikoa: 2. Irisgarritasuna erraztea					
Organoa: Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza					
Aurrekontuetako programa: Suspertze- eta erresilentzia-mekanismoa (1228)					
Diru-laguntzen lerroa: adinekoei, desgaitasuna dutenei eta/edo mendekotasun-egoeran daudenei etxebizitzarako irisgarritasun unibertsala bermatzeko lurralde-proiektu berrietarako programa					
Helburuak, lortu nahi diren adierazleen ondorioak (Planaren indarraldiaren barruan)					
<p><u>Helburua:</u> Pertsona kalteberentzako etxebizitzarako irisgarritasun unibertsala babestea.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa:</u> Adinekoentzako, desgaitasuna dutenentzako eta/edo mendekotasun-egoeran daudenentzako etxebizitzarako irisgarritasun unibertsala bermatzen duten obrak eta esku-hartzeak finantzatzea.</p> <p><u>Adierazleak/Magnitudeak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Irisgarritasun-obren kopurua: 273 ✓ Pertsona/komunitate onuradunen kopurua: 273 					
Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:					
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Etxebizitza Plan Zuzendaria (2021-2023) ✓ Suspertze-, eraldatze- eta erresilentzia-plana: adinekoei, desgaitasuna dutenei eta/edo mendekotasun-egoeran daudenei etxebizitzarako irisgarritasun unibertsala bermatzeko lurralde-proiektuen programa ✓ Euskadi Next 2021-2023 Plana 					
Dirulaguntzen xede diren sektoreak:					
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsona fisikoak ✓ Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak dituzten jabeen erkidegoak 					
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak					
7. kapitulua		Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak			
		2021	2022	2023	2024
				2.292.705,26	
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez					
Emateko prozedura: Lehiarik gabekoa					

Ardatz estrategikoa: Etxebizitzaren kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea				
Helburu estrategikoa: 1. Etxebizitzaren arloan kalitatea eta berrikuntza sustatzea				
Organoa: Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza				
Aurrekontuetako programa: Etxebizitza Programa (4312)				
Diru-laguntzen lerroa: etxebizitzaren arloan azterlanak, ikerketak eta zabalkundea egiteko dirulaguntza				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren barruan)				
<p><u>Helburua</u>: Etxebizitzaren arloko ezagutza zabaltzea eta sustatzea.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa</u>: Etxebizitzarekin lotutako gaien buruzko prestakuntza babestea.</p> <p><u>Adierazleak/Magnitudeak</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Diruz lagundutako proiektuen (ikastaroen) kopurua: 5 ✓ Ikastaroko parte-hartzaileen kopurua: 25 				
Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:				
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Etxebizitza Plan Zuzendaria (2021-2023) 				
Dirulaguntzen xede diren sektoreak:				
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Profesionalen elkargoak ✓ Elkarteak 				
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
		Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak		
4. kapitulua	2021	2022	2023	2024
		40.000	40.000	
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna				

Ardatz estrategikoa: Mugikortasun iraunkorra eta segurua bultzatzea.

Helburu estrategikoa: 2. Lurraldea sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria izan dadila bultzatzea, horretarako, mugikortasun jasangarria sustatzeko politikak garatu behar dira.				
Organoa: Garraio Plangintzaren Zuzendaritza				
Aurrekontuetako programa: Garraioaren plangintza (5141)				
Diru-laguntzen lerroa: aireportuak sustatzea, askotariko sustapenaren bidez				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren barruan)				
<p><u>Helburua:</u> Gipuzkoako Lurralde Historikoa interes ekonomiko eta turistikoko helmuga gisa sustatzea.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa:</u> Ortzibia SL Aireportuak Sustatzeko Sozietatearekin lankidetzan aritzea, Basque Country Estrategia garatzeko.</p> <p><u>Adierazleak/Magnitudeak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Erakundearen urteko planean aurreikusitako jarduerak egitea: % 100 				
Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:				
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskadiko Garraio Jasangarriaren Gida Plana (2030). ✓ Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country 2025. 				
Dirulaguntzen xede diren sektoreak: Ortzibia SL Aireportuen Sustapenerako Sozietatea				
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
4. kapitulua	Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak			
	2021	2022	2023	2024
		275.000	275.000	275.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Gipuzkoako Foru Aldundia				
Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna				

Ardatz estrategikoa: Mugikortasun iraunkorra eta segurua bultzatzea

Helburu estrategikoa: 2. Lurraldea sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria izan dadila bultzatzea, horretarako, mugikortasun jasangarria sustatzeko politikak garatu behar dira.				
Organoa: Garraio Plangintzaren Zuzendaritza				
Aurrekontuetako programa: Garraioaren plangintza (5141)				
Diru-laguntzen lerroa: Aireportuak sustatzea, Aireportuak Sustatzeko Sozietatearekin lankidetzan				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak				
<p><u>Helburua:</u> Aireko konektagarritasunak eta Bilboko aireportuaren jarduerak bere eragin-eremuan eta garapenerako palanka estrategiko batzuetan duten eragina aztertzea.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa:</u> Lankidetzan aritzea Bilboko Merkataritza Ganberarekin aireportuak sustatzeko lanean.</p> <p><u>Adierazleak/Magnitudeak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Urteko txostena. 				
Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:				
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskadiko Garraio Jasangarriaren Gida Plana (2030) ✓ Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country 2025 				
Dirulaguntzen xede diren sektoreak: Bilboko Merkataritza Ganbera				
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
4. kapitulua	Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak			
	2021	2022	2023	2024
		72.600	72.600	72.600
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna				

Ardatz estrategikoa: Mugikortasun iraunkorra eta segurua bultzatzea				
Helburu estrategikoa: 2. Lurraldea sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria izan dadila bultzatzea, horretarako, mugikortasun jasangarria sustatzeko politikak garatu behar dira.				
Organoa: Garraio Plangintzaren Zuzendaritza				
Aurrekontuetako programa: Garraioaren plangintza (5141)				
Diru-laguntzen lerroa: <i>Revista de Derecho del Transporte Terrestre, Marítimo, Aéreo y Multimodal</i> izeneko aldizkaria				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak				
<p><u>Helburua:</u> Profesionalei eta graduatu ondokoak dituztenei prestakuntza ematea, garraioaren sektorean eta sektore horren sustapenaren gainean.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa:</u> Garraio Zuzenbideari buruz urtero egiten diren artikuluen ezagutza sistematizatua eskaintzea, baita auzitegiek beren erabakien bidez epe berean egin duten jurisprudentzia garrantzitsuen ezagutza ere.</p> <p><u>Adierazleak/Magnitudeak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Urtean 2 aldizkari argitaratzea 				
Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:				
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskadiko Garraio Jasangarriaren Gida Plana (2030) ✓ Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country 2025 				
Dirulaguntzen xede diren sektoreak: Euskal Herriko Unibertsitatea				
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
4. kapitulua	Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak			
	2021	2022	2023	2024
		12.000	12.000	12.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna				

Ardatz estrategikoa: Mugikortasun iraunkorra eta segurua bultzatzea

Helburu estrategikoa: 2. Lurraldea sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria izan dadila bultzatzea, horretarako, mugikortasun jasangarria sustatzeko politikak garatu behar dira.

Organoa: Garraio Plangintzaren Zuzendaritza

Aurrekontuetako programa: Suspertze- eta erresilientzia-mekanismoa (1228)

Diru-laguntzen lerroa: errepideko garraioko enpresa pribatuak modernizatzeko laguntza-programa

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak

Helburua: Errepideko garraio-zerbitzuak ematen dituzten bidaiarien garraioko enpresa pribatuak eta salgaien errepideko garraioan esku hartzen duten enpresa pribatuak modernizatzea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasunak finantzatuta –Next Generation EU– (902/2022 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa), ohiz kanpo, eta interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoiengatik.

Lortu nahi den ondorioa: Euskal Autonomia Erkidegoan, garraio-enpresa pribatuak, garraio-operadoreak eta karga-enpresak modernizatuz, enpresen eta garraio-sistemaren eraginkortasuna handitzen laguntzea, digitalizazioaren, jasangarritasunaren, konektibitatearen, sistemen berrikuntzaren eta sektorean teknologia berriak sartzearen bidez.

Adierazleak/Magnitudeak: Egindako modernizazio-jardueren kopurua: 1.000

Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:

- ✓ Euskadiko Garraio Jasangarriaren Gida Plana 2030
- ✓ Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country 2025
- ✓ Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana

Dirulaguntzen xede diren sektoreak: Errepideko garraioko enpresa pribatuak (ETE)

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak

7. kapitulua	Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak			
	2021	2022	2023	2024
			5.139.573	

Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez

Emateko prozedura: Lehiarik gabekoa

Ardatz estrategikoa: Mugikortasun iraunkorra eta segurua bultzatzea

Helburu estrategikoa: 2. Lurraldea sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria izan dadila bultzatzea, horretarako, mugikortasun jasangarria sustatzeko politikak garatu behar dira.				
Organoa: Garraio Plangintzaren Zuzendaritza				
Aurrekontuetako programa: Suspertze- eta erresilentzia-mekanismoa (1228)				
Diru-laguntzen lerroa: Tren-geltokietako ezeztapen-sistemak digitalizatzea				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldiaren barruan)				
<p><u>Helburua:</u> Euskal Trenbide Sareko (ETS) tren-geltokietako ezeztapen-sistemak digitalizatzea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilentzia Planaren esparruan.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa:</u> Euskadiko garraio publikoa digitalizatzea.</p> <p><u>Adierazleak/Magnitudeak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ezeztapen-makina digitalizatuen kopurua: 130 				
Eragindako eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:				
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskadiko Garraio Jasangarriaren Gida Plana 2030 ✓ Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country 2025 ✓ Suspertze, Eraldatze eta Erresilentzia Plana 				
Dirulaguntzen xede diren sektoreak: Euskal Trenbide Sarea (ETS)				
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
7. kapitulua	Urte bakoitzean eman beharreko guztizko zenbatekoak			
	2021	2022	2023	2024
			1.000.000	
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna				